

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777			
ARLOA / IRAKASGAIA	EUSKERA						DATA	2018-2019		
MAILA	LH 5		LH 6							
1	ARLOAREN GUTXIENEO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA									
<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, ulertutakoa komunikazio eta ikaskuntza egoera berriei aplikatzeko. - Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio premia guztiak betetzeko. - Hainbat egoeratan elkarrizketan egoki aritzea, errespetuz eta elkarri lagunduz, norberaren sentimenduak eta ideiak zein diren jakiteko, nork bere jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzen ikasteko. - Gizarte hedabideak, informazio eta komunikazio teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea (informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea...), jakintza eraikitzeke eta bizitza sozialean parte hartzeko. - Hizkuntzen erabilerei eta araei buruzko gogoeta egitea, hizkuntza egoki, koherentziaz eta zuzen erabili ahal izateko, hizkuntzaren estereotipoak eta bestelako aurreiritziak alde batera utziz. - Ikasgelako eta komunitateko hizkuntza aniztasunari balioa ematea, hizkuntza guztiak komunikazio tresna egokitzat eta kultura ondareztat hartuz. - Ulertuz irakurtzea era askotako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horrela, irakurketara zaletzea. - Literaturaz gozatzea, genero askotako testuak irakurriz eta entzunez, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeke. - Literaturaren hizkuntzaren oinarritzko arauak ezagutzen hastea, testuak ulertzeko eta ekoizteke. - Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, komunikatzeko gaitasuna hobetzeko. 										



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 5		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> - Izena eta aditza - Letra larria - Sinonimoak eta antonimoak - Izenondo eta izenlagunak - Aditzaren aldia - s,z,x - Mugatzailea eta mugagabea - a itsatsia - Polisemia - Zenbatzaileak - Hitz elkartuak - ts,tz,tx - Galde eta harridura perpausak - Izenordaina 	<ul style="list-style-type: none"> - Deklinabidea - Aditza - Komaren erabilera - Hitz elkartuak - Partituboa - H letra - Egile-atzizkiak - Erlatibozko perpausak - Jatorri atzizkiak - Atzizki instrumentalak - Atzizki materialak - Agintera - -tsu eta -ti atzizkiak - Bi puntuak eta eten-puntuak 	<ul style="list-style-type: none"> - Aditzlaguna eta aditzondoa -tz,tx,ts - -ero eta -ka atzizkiak - Aditz trinkoak - Denborazko perpausak - Orduak - Onomatopeiak - Aditza (NOR-NORI, NOR-NORK, NOR-NORI-NORK) - Bait- partikula - Hitz familiak -Konparazio-perpausak - -in-, -il- / ñ, ll - Marra elkarrizketan - Perpaus osagarriak
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 6		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> - Izena eta aditza - Perpausaren osagaiak - s,z,x - Hitz elkartuak - Izenordainak - Aditzaren aspektua - ts,tz,tx - Hitz elkartuak - Izenlagunak - Marraren erabilera - -tasun eta -keria atzizkiak - Mugatzailea eta mugagabea - Perpaus bakunak - -kizun, -kuntza, -tza, -men/-pen atzizkiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Deklinabidea - Perpaus osagarriak - a itsatsia - -tza, -kada, -eria atzizkiak - Perpaus erlatiboak - R eta RR - -(k)era, eta -keta atzizkiak - Agintera - TT, DD, Ñ eta LL kontsonante bustiak - -di/-ti, -degi/-tegi, -te atzizkiak - Postposizioak - Ahalera - H letra - -bera, -koi, -kor atzizkiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Baldintza perpausak - Denborazko perpausak - Ba- aurrizkiak - -garri, -gaitz, -dun atzizkiak - Kontsezio perpausak - Kausazko perpausak - s,z,x - Atzizki graduatzaileak - Helburuzko perpausak - Subjuntiboa - ts,tz,tx - -bir/-ber, des-, aurre-, azpi-atzizkiak - Konparazio perpausak - Ondorio perpausak - Koma eta puntu eta koma - Interjekzioak

3	EBALUAZIO- IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
----------	---

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko zein idatzizko testuak ulertzen ditu eta testu horien ideia nagusiak ateratzen ditu.
- Irakurketaren bidez informazio garrantzitsua aurkitu eta aukeratu du.
- Ahozko testuak sortzen ditu era koherentean, baliabide ez-linguistikoak (keinuak, ikusizko euskarriak) behar bezala erabilia eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.
- Ikastetxeko eta gertuko ingurune harreman-egoeretan parte hartzen du, behar bezalako naturaltasun, egokitasun eta zuzentasunez hitz eginez, harremanaren oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.
- Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzen ditu, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, koherentzia-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horien erabiltzeko interesa adieraziz.
- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egiten du — testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzen du ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak gero eta autonomia handiagoz sortzeko eta berrikusteko.
- Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzen eta balioesten du, inguruko errealitate linguistikoari erreparatuta.
- Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzen, entzuten eta adierazten ditu: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.
- Literatura erabiltzen du gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.
- Ikasten ikasteko estrategiak erabiltzen ditu.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

EDUKIAK %60

- Probak eta azterketak

PROZEDURAK ETA JARRERAK %40

- Gelako lana: autonomia, antolaketa...
- Etxerako lana: ordena eta aurkezpena.
- Fitxak eta koadernoak: txukuntasuna, pautak...
- Ardura eta jarrera: bakarkakoa, irakasle eta ikasleekikoa.
- Txukuntasuna: bakoitzaren materiala, amankomuneko, mahaiak...
- Euskararen erabilera.